

**DOAKO AHOLKULARITZA-, ZUZENKETA- eta ITZULPEN-ZERBITZUA**

Udalak doako aholkularitza-, zuzenketa- eta euskara-gaztelania eta gaztelania-euskararen arteko itzulpen-zerbitzua eskaintzen du.

Nori eskaintzen diogun zerbitzua

- Herritarrei
- Herriko establezimenduei (oharrak, gutunak, jatetxeetako kartak, prezio-zerrendak...)
- Herriko elkarteei (kirol elkarteak, kulturakoak, gastronomikoak...)
- Herriko enpresei (faktura-ereduak, gutunak, errotuluak...)

Baldintza orokorrak

- Testuaren gehieneko **luzera**: 3 orrialde.
- **Epea**. Itzulpena edo zuzenketa Udal Hizkuntza Politika departamentuak duen lan-karga kontuan hartuta egingo da, eta ekartzen duen unean jakinaraziko zaio eskatzaileari itzulpena noizko egin ahal izango den.
- Zuzendu edo itzuli beharreko testuak **argi idatzita** egongo dira eta, ahal dela, **euskarri informatikoan** entregatuko dira, formatu editagarrian (word, odt...)
- **Idatzia sortu duenaren edo arduradunaren telefono zenbakia** eskuratu beharko da beti, izan litezkeen zalantzak argitzeko.

Zuzenketa

- Zuzendu beharrekoa eskatzaileak euskaratutakoa baldin bada, **jatorrizko testua ere ekarri** beharko du.

Itzulpena

Ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- **Testuaren erabilera**:
 - Testua **zabalpen publikorako edo behin eta berriz erabiltzekoa izatea**: kartelak, errotuluak, inprimakiak, fakturak...
 - Ez dira itzuliko, adibidez, elkarte edo talde pribatu baten aktak edo erakunde publikoetara bideratzen diren dokumentuak.
- Testuaren gehieneko luzera: **3 orrialde**
- Testu luzeagoak direnean, Udal Hizkuntza Politikak itzulpen enpresa batera bideratuko du eskatzailea
- Aldez aurretik itzultako testu baten itzulpena eskatzen denean, aurretik egindako itzulpena ere ekarri beharko da

Eskaera egiteko

Bidal ezazue testua helbide honetara: itzultzailea@errenteria.eus

Zalantzarik izanez gero, deitu 943 449613 telefono zenbakira.